

Maiatzak 18, Museoen Nazioarteko Eguna

Euskadiko bost gaztetik bat museoaren batera joan da azken hilabeteetan



Museoen Nazioarteko Eguna (maiatzak 18) dela eta, [Gazteen Euskal Behatokiak](#) Euskadiko zenbat gazte joaten diren museoetara adierazi nahi du. Horretarako 2016an 15 eta 29 urte bitarteko 1500 gazteri egindako inkesta batean oinarritu da. Inkesta horretan hainbat gairi buruz galdetu da, horien artean museoetara bertaratzeari buruz.

Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazte horien % 19k inkesta egin aurreko hiru hilabeteetan museoaren batera joan direla diote.

Museoetara bertaratze datuak ez dira asko aldatu azken urteotan: gazteen % 18 bertaratu ziren 2007an, % 20 ziren 2012an eta % 19 dira 2016an.

Portzentajeak antzekoak dira nesken eta mutilen artean (% 19 eta % 18, hurrenez hurren).

20 urtetik gorakoen portzentajea gazteagoak direnena baino handixeagoa da, eta horrela 15-19 urte bitartekoaren artean % 16koa bada ere, 20-24 urte bitartekoaren artean % 21era izatera pasatzen da eta gero jaisten da zertxobait (% 19 nagusien taldean, hau da 25-29 urte bitartekoaren artean).

Bizkaiko gazteak gainontzekoak baino proportzio handiagoan joaten dira museoetara (% 22); atzetik Arabakoak datoz (% 19) eta Gipuzkoan bizi direnak, aldiz, proportzio txikienean joaten dira (% 14).

Gizarte mailaren arabera ere desberdintasunak ikus daitezke. Beren burua maila altuan edo ertain-altuan kokatzen dutenen % 27k diote museoetara joan direla inkestaren aurreko hiru hilabeteetan. Aitzitik, maila ertainekoak edo maila ertain-baxukoak edo baxukoak direla diotenen artean % 18 joan dira museo batera epe horretan.

Bestalde, gazteen eta biztanleria osoaren datuak alderatzen baditugu, ikus dezakegu museoetara bertaratzen direnen portzentajeak berdinak direla talde bietan (% 19). Biztanleria osoaren datua Espainiako Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren web orritik atera da ("[Encuesta de Hábitos y Prácticas Culturales en España 2014-2015](#)" izenburuko ikerketatik, hain zuzen ere).

